

HONDARRIBIKO UDALA

«Domingotxoenea» udal hilerriko 34 hilobiren erabileraren aldi baterako emakida zozketaz esleitzeko baldintza pleguaren onarpena.

Alkatetzak, bere eskumenak betetzen laguntzen dion Hondarribiko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak dioena entzun ondoren, 2010eko martxoaren 22ko bilkuran «Domingotxoenea» udal hilerriko 34 hilobiren erabileraren aldi baterako emakida zozketaz esleitzeko baldintza plegua onartu zuen. Hilobiak zenbakitu egingo dira, aldi baterako emakida esleitzeko zozketa egiteko, hain zuzen ere, AN-00324tik AN-00355era, biak barne, alde zaharrean, Montserrateko Ama Zatia izeneko gunean, eta alde berrian, NU00013 eta NU00067.

Baldintza Pleguak dioenaren arabera, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da eta esleipen prozesuan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea irekiko da.

Aipatutako eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

**HONDARRIBIKO «DOMINGOTXONEA»
UDAL HILERRIKO 34 HILOBIREN ERABILERAREN
ALDI BATERAKO EMAKIDA ZOZKETAZ ESLEITZEKO
BALDINTZA PLEGUA**

Lehenbizikoa.

Plegu honen xedea Hondarribiko «Domingotxoenea» Udal Hilerriko 34 hilobiren erabileraren aldi baterako emakida zozketaz esleitzeko baldintzak ezartzea da; zenbakitu egingo dira, aldi baterako emakida esleitzeko zozketa egiteko, hain zuzen ere AN-00324tik AN-00355era, biak barne, alde zaharrean, Montserrateko Ama Zatia izeneko gunean, eta alde berrian, berriz, NU-00013 eta NU-00067 hilobiak.

Hilobitzat ulertuko dagokion zuloa, beraz, Plegu honek xede duen erabileraren emakidak ez du bere baitan hilarria, gurutzeta, edo bestelako ikurrik edo hileta osagairik izango.

Bigarrena.

Emakida epea berrogeita hamar urtekoa izango da, eta luzatu ahal izango da, beste berrogeita bederatzi urtez gehienez.

Hirugarrena.

Esleipen bakoitzaren emakida prezioa 24.000 €koa izango da, eta emakida akordioa jakinarazten denetik bi hilabetetan ordaindu beharko da gehienez, zozketaren emaitzaren arabera.

Laugarrena.

Ondoko baldintzak bete beharko dituzte Hondarribiko «Domingotxoenea» Udal Hilerriko 34 hilobiren erabileraren aldi baterako emakidaren esleipen eskaera egin nahi dutenek eta esleipendun suerta daitezkeenek.

1. Hondarribikoa izatea edo esleipen eskaera egiten dene-tik Hondarribian gutxienez urte betez erroldatua izatea.

AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

Aprobación del pliego de condiciones para la adjudicación por sorteo de la concesión temporal de uso de 34 sepulturas en el cementerio municipal «Domingotxoenea».

La Alcaldía, oída la Junta Local de Gobierno de este Ayuntamiento de Hondarribia en su función de órgano de asistencia a la Alcaldía en el ejercicio de sus atribuciones, aprobó en sesión celebrada el día 22 de marzo de 2010 el Pliego de Condiciones para la Adjudicación de la Concesión Temporal de Uso de 34 sepulturas en el Cementerio Municipal «Domingotxoenea», numeradas a efectos del sorteo de adjudicación de la concesión temporal de las mismas de la AN-00324 a la AN00355, ambas inclusive en zona antigua, situadas en la zona denominada Montserrateko Ama Zatia, y NU00013 y NU00067 en zona nueva.

De acuerdo con lo dispuesto en el citado Pliego de Condiciones, se procede a su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, y apertura de plazo para presentación de solicitudes de participación en el proceso de adjudicación objeto del citado pliego.

El plazo durante el cual podrán presentarse las citadas solicitudes es de un mes contado a partir de la publicación del presente anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

**PLIEGO DE CONDICIONES PARA LA ADJUDICACION
POR SORTEO DE LA CONCESION TEMPORAL DE USO
DE 34 SEPULTURAS DEL CEMENTERIO MUNICIPAL
«DOMINGOTXONEA» DE HONDARRIBIA**

Primera.

El objeto de este Pliego es el establecimiento de las condiciones que han de regir el proceso de adjudicación por sorteo de la concesión temporal de uso de 34 sepulturas del Cementerio Municipal «Domingotxoenea» de Hondarribia, numeradas, a efectos del sorteo de adjudicación de la concesión temporal de las mismas, de la AN-00324 a la AN-00355, ambas inclusive en zona antigua, situadas en la zona denominada Montserrateko Ama Zatia y NU-00013 Y NU-00067 en zona nueva.

Por sepultura se entenderá la disposición del correspondiente hueco, por tanto, la concesión de uso de las sepulturas, objeto de este Pliego, no incluye lapida, cruz ni cualquier otro símbolo funerario o elementos que definan el recinto de las sepulturas.

Segunda.

El plazo de concesión será por cincuenta años, que podrá ser prorrogado por otro nuevo plazo no superior a cuarenta y nueve años.

Tercera.

El precio de adjudicación de cada concesión será de 24.000 €, que será abonado en el improrrogable plazo de 2 meses siguientes al de la notificación del acuerdo de otorgamiento de la concesión, conforme al resultado del sorteo.

Cuarta.

Podrán formalizar su solicitud de adjudicación, tomar parte en el sorteo y ser finalmente adjudicatarios de la concesión temporal de uso de una de las 34 sepulturas del Cementerio Municipal «Domingotxoenea» de Hondarribia, objeto de este Pliego, quienes cumplan las siguientes condiciones:

1. Ser natural de Hondarribia o figurar empadronado en Hondarribia por lo menos con un año de antigüedad al momento de formalizar la solicitud de adjudicación.

2. Esleipen eskaera egiterakoan ez izatea Hondarribian hileta eskubidearen emakida titulartasunik.

Esleipen eskaera zenbait interesaturen izenean egiten bada guztiak bete beharko dituzte aurreko baldintzak.

Bosgarrena.

Hondarribiko «Domingotxonea» Udal Hilerriko 34 hilobiren erabileraren aldi baterako emakida zozketaz esleitzeko prozesu horretan parte hartzeko eskaerak idatziz egingo dira, interesatu bakarraren edo gehiagoren izenean emakida bakarra esleitzeko, eta ez da onartuko interesatu bat esleipen eskaera batean baino gehiagotan agertzea.

Esleipen eskaera bat zenbait interesaturen izenean egiten bada eskaeragile guztiak sinatu beharko dute eskaera, eta bertan azaldu beharko du esleipen prozesu honen izapideetan eta emakidaren garapenean gainontzekoak ordezkatzeko dituen interesatuaren izena.

Eskaerak Kale Nagusia 20an dagoen Agiriei sarrera emateko Udal Erregistroan egin beharko dira (BAZen), Plegu honen onarpen iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hilabete betean.

Interesatuak eskaerari ondoko agiriak erantsi beharko dizkiote:

1. Esleipen eskaera sinatzen duten guztien zinpeko aitortpena, inork Hondarribian hileta eskubiderako emakidaren titulartasuna ez duela adierazten duena.

2. Esleipen eskaera sinatzen duten guztien Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

Seigarrena.

Esleipen eskaerak egiaztaturik, behin-behineko onartutako eta onartu gabeko zerrendak egingo dira; hauek Udaleko Iragarki Taulan eta Udal web orrian argitaratuko dira (www.hondarribia.org), eta interesatuei jakinaraziko zaie, jakinarazten den egunetik hasita hamabost egunetan alegazioak aurkez ditzaten.

Izan litezkeen alegazioak ikusi eta aztertuta, onartutako eskaeren behin betiko zerrenda egingo da, hurrenkera alfabetikoan hain zuzen ere, eta eskaera bakoitzari zenbaki korrelatiboa emango zaio, ondoren Plegu honen xedea den Hondarribiko «Domingotxonea» Udal Hilerriko 34 hilobiren erabileraren aldi baterako emakida zozketaz esleitzeko.

Alegazioen ebazpena eta eskaeren behin betiko zerrenda Udaleko Iragarki Ohelean eta Udal Web orrian (www.hondarribia.org) azalduko dira, eta interesatuei jakinaraziko zaizkie.

Zazpigarrena.

Plegu honen xede den Hondarribiko «Domingotxonea» Udal Hilerriko 34 hilobien erabileraren aldi baterako zozketa bidezko emakida esleipena zozketa publiko bitartez egingo da, publikoki iragarriko da, eta honela garatuko da:

Bi poltsa ezberdinetan, hurrenez hurren, aurkeztutako eskaera adina bola zenbakitu edo antzekoak sartuko dira, eta esleitzeko diren aldi baterako emakida izango duten hilobi adina bola zenbakitu.

2. No tener al momento de formalizar la solicitud de adjudicación la condición de titular de una concesión de derecho funerario en Hondarribia.

En caso de realizarse una solicitud de adjudicación a favor de varios interesados las anteriores obligaciones deberán ser cumplidas por todos ellos sin exclusión.

Quinta.

Las solicitudes para tomar parte en el proceso de adjudicación de la concesión temporal de uso de una de las 34 sepulturas del Cementerio Municipal «Domingotxonea» de Hondarribia, objeto de este Pliego, se formalizarán por escrito, a nombre de uno o varios interesados en la adjudicación de una misma concesión, no admitiéndose que un mismo interesado figure en mas de una solicitud de adjudicación.

En el supuesto que una solicitud de adjudicación se formalice a nombre de varios interesados, la solicitud deberá estar suscrita por todos los solicitantes, y en ella se hará constar la designación del solicitante que represente a los demás en los trámites del presente proceso de adjudicación, y con posterioridad durante el desarrollo de la concesión.

Las solicitudes se presentarán en el Registro Municipal de Entrada de Documentos (BAZ), sito en Kale Nagusia n.º 20, en el plazo de un mes desde la publicación del anuncio de aprobación del presente Pliego en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Los interesados deberán adjuntar a su solicitud los siguientes documentos:

1. Declaración jurada de cuantos suscriban la solicitud de adjudicación de que ninguno de ellos tiene la condición de titular de una concesión de derecho funerario en Hondarribia.

2. Fotocopia de Documento Nacional de Identidad de todos los que suscriban la solicitud de adjudicación.

Sexta.

Comprobadas las solicitudes de adjudicación, se procederá a la elaboración de las listas provisionales de admitidas y excluidas, que serán publicadas en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y la página Web Municipal (www.hondarribia.org), y notificadas a los interesados, para conocimiento y presentación de posibles alegaciones en el plazo de quince días desde su notificación.

Vistas y resueltas las posibles alegaciones se confeccionará la lista definitiva de solicitudes admitidas, ordenada alfabéticamente, y otorgando a cada solicitud un número correlativo a efectos del posterior sorteo de adjudicación de la concesión temporal de uso de una de las 34 sepulturas del Cementerio Municipal «Domingotxonea» de Hondarribia, objeto de este Pliego.

La resolución de alegaciones y la lista definitiva de solicitudes admitidas será expuesta en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y la página Web Municipal (www.hondarribia.org) y notificada a los interesados.

Séptima.

La adjudicación de la concesión temporal de uso de una de las 34 sepulturas del Cementerio Municipal «Domingotxonea» de Hondarribia, objeto de este Pliego, se realizará mediante sorteo público, cuya celebración se anunciará públicamente, y se desarrollará de la siguiente manera:

En dos bolsas distintas se introducirán respectivamente tantas bolas numeradas o elemento similar como solicitudes se hayan presentado, y tantas bolas numeradas o elemento similar como sepulturas cuya concesión temporal va a ser objeto de adjudicación.

Poltsa bakoitzetik bola bana aterako da, horrenbestez eskaera poltsatik ateratako bolak ordezkatzan duen eskaera zenbakiari, esleituko zaiolarik hilobien poltsatik ateratako bolaren zenbakiari dagokion hilobia.

Eskaera kopurua hilobi kopurua baino handiagoa bada, hilobien poltsatik azken bola ateratakoan eskaera poltsatik bolak ateratzen jarraituko da itxaron zerrenda bat egiteko, Plegu honen xede diren emakiden esleipendun suerta litezkeeneko uko egiteak betetzeko.

Udal Idazkariak zozketaren eta emaitzaren akta jasoko du.

Zortzigarrena.

Zozketaren emaitza izanik, Hondarribiko Udalak eskaeragilearen edo eskaeragileen alde Hondarribiko «Domingotxoenea» Udal Hilerriko hilobi baten aldi baterako emakida egiteko akordioak egingo ditu, eta akordio horiek eskaeraren titularrari jakinaraziko zaizkio, edo, zenbait interesaturen izenean egin bada, ordezkari izendatu dutenari.

Emakida akordioa eraginkorra izango da baldin eta interesatuek akordioa jakinarazten den egunetik hasita gehienez bi hilabeteko epean emakidaren prezioa ordaintzen badute; diru sarrera zuzitzeko agiria Kale Nagusia 20an dagoen Agiriei sarrera emateko Udal Erregistroan egin beharko dira (BAZen).

Aipatutako epean ordaintzen ez duten interesatuek automatikoki beste errekerimendurik gabe esleipen eskubidea. Kasu horretan emakida akordioa itxaron zerrendan lehenbizi dagoenaren alde egingo da, hasierako esleipendunarekin izan den izapide eta araubide bera jarraituz.

Bederatzigarrena.

Plegu honen xede den Hondarribiko «Domingotxoenea» Udal Hilerriko 34 hilobiren erabileraren aldi baterako emakidak, osasun eta hileta araudiaren lege orokorra eta berezia, Udal Ordenantza Fiskalak, eta Udal Hilerriko Araudia betetzen ditu.

Hondarribia, 2010eko apirilaren 27a.—Aitor Kerejeta Cid, Alkatea. (5002)

Se irán extrayendo simultáneamente una bola de cada bolsa, de forma que al número de solicitud representada en la bola extraída de la bolsa de las solicitudes le será adjudicada la concesión temporal de la sepultura a que corresponda el número de la bola extraída de la bolsa de las sepulturas.

Si el número de solicitudes fuera mayor que el de sepulturas, extraída la última bola de la bolsa de las sepulturas, se seguirán extrayendo bolas de la bolsa de solicitudes con el fin de confeccionar una lista de espera para atender a las adjudicaciones derivadas de las posibles renunciaciones de quienes sucesivamente pudieran resultar adjudicatarios de las concesiones objeto del presente Pliego de Condiciones.

Del transcurso del sorteo y de su resultado se levantará acta por parte de la Secretaria Municipal.

Octava.

Atendiendo al resultado del sorteo el Ayuntamiento dictará los correspondientes acuerdos de concesión temporal de uso de una sepultura del Cementerio Municipal «Domingotxoenea» de Hondarribia a favor de quién o quienes figuren como interesados en cada solicitud, siendo tales acuerdos notificados al titular de la solicitud, o a quien se haya designado como representante en caso que la solicitud se haya hecho a nombre de varios interesados.

La efectividad del acuerdo de concesión quedará condicionada a que los interesados hagan efectivo el pago del precio de la concesión en el improrrogable plazo de 2 meses siguientes al de notificación del acuerdo debiendo presentar el justificante de ingreso en el Registro Municipal de Entrada de Documentos (BAZ), sito en Kale Nagusia n.º 20.

Los interesados que no hagan efectivo en el plazo señalado el referido pago del precio perderán automáticamente, y sin más requerimiento, el derecho de adjudicación. En este caso se dictará acuerdo de concesión a favor de quien en ese momento figure en primer lugar en la lista de espera, siguiendo el mismo trámite y régimen que con el adjudicatario original.

Novena.

La concesión temporal de uso de cada una de las 34 sepulturas del Cementerio Municipal «Domingotxoenea» de Hondarribia, objeto de este Pliego, estará sometida a la legislación general y especial reguladora en materia de sanidad y policía mortuoria, a las Ordenanzas fiscales municipales y al Reglamento del Cementerio Municipal.

Hondarribia, a 27 de abril de 2010.—El Alcalde, Aitor Kerejeta Cid. (5002)